

DUELA URTEBETEKO ITXAROPENAK ERABAT GAINDITU DIRELA ADIERAZI ZUEN XABIER MENDIGURENEK BILBON

«Fruituak jasotzeko unea» dela nabarmendu du Kontseiluak Akordioaren urteurrenean

■ Urtebeteko lanaren emaitza baikor baloratu zuten atzo Bilbon Bai Euskarari Akordioaren Jarraipen Batzordeko kideek

■ Gizarte eragileek guztira 759 konpromiso zehatz onartu dituzte Plan Estrategikoaren diseinuan

■ Akordioaren alde garrantzitsuenari, konpromisoak gauzatzeari, ekingo diote datorren urteko hilabeteetan

Kristina Martin / Bilbo

«URTEBETEAN egindako lanaren fruituak jasotzeko garaia da», esan zuen atzo Xabier Mendigurenek, Kontseiluko idazkari nagusiak. Bai Euskarari Akordioaren Jarraipen Batzordeko kideek bilera egin zuten atzo Bilbon akordioaren lehenengo urtemuga ospatzeko eta orain arte egindako lanaren balorazioa egiteko.

Urtebeteko lanari buruzko iritzi baikorra agertu zuten aho batez Kontseiluko kideek. «Iaz Iruñean akordioa sinatu zenean ezarri genituen itxaropen guztiak gainditu ditugu», adierazi zuen Mendigurenek. «Gizartean ikusi dugun erantzunak lanean segitzeko itxaropena pizten digu, prozesuaren hasieran agertutako prestutasunari eutsi ez ezik, azken fasean areagotu dela uste dut», gaineratu zuen Joxe Jabier Iñigok, Kontseiluko Plangintza-buruak.

Guztira 700 gizarte eragileek hartu dute parte plan estrategikoaren diseinuan, eta 759 konpromiso zehatz onartu dira. Aste honetan bertan amaitu du Kontseiluak plan estrategikoaren diseinua, eta «hemendik aurrera konpromiso zehatzak hartu eta gauzatzeko bideei heldu behar diegu», jakinarazi zuen Xabier Erdoziak, MCCko (Mondragon Corporacion Corporativa) ordezkaria eta Kontseiluko egungo bozeramaleak.

Halaber, Joxe Jabier Iñigok azaldu zituen Bai Euskarari Akordioak ezarritako erronkak: «Euskara ohiko erabile-ra hizkuntza izateko bitartekoak ezartzea, hala nola, gizarte erakundeen barne antolaketa euskaldundu, langileak euskaraz lan egiteko trebatu eta euskarazko eskaintza areagotzea, besteak beste», zehaztu zuen hedabideen aurrean.



XOUSE SIMAL

Jarraipen batzordeko kideak: ezkerretik eskuinera, Nicholson (EHNE), Latxaga (Athletic), Iñigo (Plangintza burua), Bilbao (BBK), Ramos, Erdozia (MCC), Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia, Alfaro (Instituto Onkologikoa), Zeberio (ELA) eta Amigot (ANEL).

Plan Estrategikoaren historia

Urtebetean garatu dira Plan Estrategikoaren bost faseak.

Izan ere, lehenengo fasea 1998ko abenduan hasi zen, eta herritarren sustengua jaso zuen, batez ere. Bigarren fasean akordioa abian jarri

zen, Iruñean egindako sinadurarekin eta 22 sustatzaile-ren laguntzaz. Bileretan hartutako konpromisoak gauzatzeko behar ziren finantzazio

bideak aztertzeke garaia heldu zen, berriz, otsailetik maiatza bitarteko hilabeteetan. Lanordu bat akordioaren alde izan zen ildo horretan

Jose Manuel Amigot • ANELEko ordezkaria



«Gizartearen ezaugarriei egokitu behar du enpresak»

►«Nafarroako enpresetan euskararekiko sentsibilitate desberdinak ditugu. Zonalde euskaldunetan daudenetan harrera ezin hobea izan du akordioak. Gainontzekoetan, ordea, ez hainbeste. Bestalde, enpresa irizpideak hartuta, nola gizartea halako eskaintza printzipioa betetzen saiatzen gara. Inguruko gizarteak euskarari garrantzia ematen badio, geuk ere emango diogu.»

Paul Nicholson • EHNE sindikatua



«Egoera desberdinak daude, baina aurrera goaz»

►«Azkenengo urteotan sentsibilizazioan aurrerapausoak eman dira gure erakundean. Araban eta Nafarroan, batez ere, baita Bizkaiko leku batzutan ere baserriar eraldun asko daude, baina euskararekiko jarrera ona da. Dena dela, aurrera goazela nabaria da. Hezkuntza arloan euskaraz izandako garapenak gurasoen jarreran eragina dauka, euskara egiteko ohitura zabaltzen ari da.»

Juan Carlos Latxaga • Athletic



«Gizartearen isla eta eredu ere badira kirolariak»

►«Kirol talde batek euskararen alde egin dezakeen onena kanpoaldera begira gizartearen eredu izatea. Hala ere, barnera begira zaila da helburu guztiak lortzea, denbora pixka bat behar da. Bestalde, jokalariei eta lurraldearen arteko desberdintasun handiak daude, gizarteko beste arloetan bezala, eta, beraz, erritmo desberdinak eskatzen ditu prozesuak kirol alorrean ere. Azken finean jokalariek gizaki arruntak dira.»